

GELA BIRTUALAK ETA 2018/19 IKASTURTERAKO ALDAKETA

Ekaina-Iraila 2018

- 1. Zerbitzuen egutegia: Gela Kudeatzailea, eGela 17/18 eta eGela 18/19**
- 2. eGela 17/18 Segurtasun kopiak**
- 3. Berreskuratu eGela 18/19an pasa diren segurtasun kopiak**
- 4. "Nire Biltegian" dauden segurtasun kopiak beste baten esku jartzea**

ZERBITZUEN EGUTEGIA

eCampus ZERBITZUAK	EKAINAREN 11ra ARTE	EKAINAREN 12tik-14ra	EKAINAREN 15etik URRERA	IRAILAREN 28tik AUERRERA
 Gela Birtualen Kudeatzailea	17/18-rekin konektatuta	ZERBITZUZ KANPO	18/19-rekin konektatuta	18/19-rekin konektatuta
 eGela 17/18	ESKURAGARRI	ESKURAGARRI	ESKURAGARRI	ITXIERA
 eGela 18/19	-	-	ESKURAGARRI	ESKURAGARRI

Ikasturte berria martxan jartzeko geldialdi teknikoak **Ikasgela Birtualen Kudeatzailea** (<http://kudeaketacvb.ehu.es>) zerbitzuan bakarrik izango du eragina:

- 2018ko **ekainaren 11ra** arte: normaltasunez erabili ahal izango da eta **GAUR 2017/18** ikasturtearekin lotuta.
- 2018ko **ekainaren 12 eta 14 bitartean**: zerbitzuz kanpo.
- 2018ko **ekainaren 15tik** aurrera: eskuragarri eta **GAUR 2018/19** ikasturtearekin lotuta.


Geldialdi teknikoak ez du **eGelan** (<http://egela.ehu.eus/>) eraginik izango eta ekainaren 15tik irailaren 28ra arte sartu ahal izango da:

- **eGela 2017/18** ikasturtean, 2018ko irailaren 28ra arte etenik gabe normaltasunez funtzionatzen jarraituko duena.
- **eGela 2018/19** ikasturtean, 2018ko ekainaren 15etik aurrera eskura izango dena.

2017/18ko GELA BIRUTALEN SEGURTASUN KOPIAK

❖ SISTEMAK SORTUTAKO SEGURTASUN KOPIA:

Ekainaren 1era arte sistemak automatikoki sortu eta zerbitzarian *biltzen* du **eGela 2017/18** plataforman dauden gela birtual bakoitzeko “*Segurtasun kopia*” bat.



Segurtasun kopien artxibo fisikoak ez dira irakasleen esku jarriko, 2018/19 ikasturteko gela birtual batean berreskuratzeko beharrezkoa ez delako.

Irakasle bakoitzak aukera izango du **Ikasgela Birtualen Kudeatzailearen** bidez (<http://kudeaketacvb.ehu.es>) “**Nire Biltegia**” atal berrian zerbitzarian bere izenean *bilduta* dauden aurreko ikasturteetako *segurtasun kopiak* ikusteko eta haien arteko edozein kopia garaiko ikasturteko gela batean berreskuratzeko:

- Bere *Segurtasun Kopia* - eGela **17/18**
- Bere *Segurtasun Kopia* - eGela 16/17
- Bere *Segurtasun Kopia* - eGela 15/16
- Bere *Segurtasun Kopia* - eGela 14/15
- Bere *Segurtasun Kopia* - Moodle 13/14
- Bere *Segurtasun Kopia* - Moodle 12/13
- Bere *Segurtasun Kopia* - Moodle 11/12
- Bere *Segurtasun Kopia* - Moodle 10/11
- Bere *Segurtasun Kopia* - Moodle 09/10



Gela Birtualen Kudeatzailearen bidez (<http://gestioncvb.ehu.es/>) eGela 2018/19 gela batean "Nire Biltegia"-n agertzen den edozein segurtasun kopia berreskuratu ahal izango da.



OHARRA: 2018ko ekainaren 1tik aurrera eGela 2017/18 gela birtualean material berriak jarritz gero, ez dira zerbitzarian gordetzen den segurtasun kopian egongo.

Posiblea da segurtasun kopia eguneratua eskatzea, horretarako eskatu behar da CAU-ren bidez.

AURREKO IKASTURTEETAKO MATERIALAK eGelan BERRESKURATU


Lehenengo eta behin **gomendatzen** da **eGela** 2018/19 gela birtualean materialik ez dagoela konprobatzea. Materialak izanez gero, bikoiztuta agertuko lirateke gela birtualean eta ezabatzea irakaslegoak eskuz egin beharko luke, hau da, errekurtsos errekurtsos.

Behin konprobatuta, eskaerak **Ikasgela Birtualen Kudeatzailea**-ren bidez (<http://kudeaketacvb.ehu.es>) egiten dira, zeina GAUR 2017/18 ikasturtearekin konektatua dagoen eta bere **eGela** 2018/19 gela birtualak kudeatzeko aukera ematen duen.



ZEIN MATERIAL BERRESKURA DAITEKE eGela 2018/19ko GELA BIRTUAL BATEAN

- ❖ Aurreko ikasturteetako zerbitzarian irakaslearen izenean *bilduta* dagoen edozein *segurtasun kopia*.
- ❖ Irakasle bakoitzak aukera izango du **Ikasgela Birtualen Kudeatzailea**-ren bidez (<http://kudeaketacvb.ehu.es>) "Nire Biletegia" atal berrian zerbitzarian bere izenean dauden aurreko ikasturteetako Moodle *segurtasun kopiak* ikusteko eta bere **eGela** 2018/19 edozein gelatan berreskuratzeko.



- ❖ **eGela** 2018/19 gela birtual batean "Nire Biletegia" zerrendaren *segurtasun kopia* bat berreskuratzeko, irakasleak berak **Ikasgela Birtualen Kudeatzailea**-ren bidez (<http://kudeaketacvb.ehu.es>) eskatu beharko du.

Sistemak bi modutan egiteko aukera ematen du:

- "Berriak" atalean: gela existitzen ez denean, "Alta eman" eskatzen denean "Materialak berreskuratzen" aukeratuz gero.



- "Unekoak" atalean: gela birtuala aktibatuta dago, hutsik ala materialekin, "Edukien karga" eskatzen denean. Gomendatzen da eskatu baino lehen eGela 2018/19 gela birtualean sartzea ea materialak dauden konprobatzeko, nahastuta agertuko lirateke eta.



Bi kasuetan sistemak "Nire Biltegia" zerrenda azaltzen dio irakasleari, berreskuratu nahi duen aurreko ikasturteko irakasgaien bat aukeratzeko. Komenigarria da aurreko ikasturteko kopia aukeratzeko, hau da 2017/18koa, eta hala posiblea ez bada berriena.

GARRANTZITSUA: gomendatzen da

- ✓ Lehenik eta behin eGela 2018/19 gelan materialik dagoen ala ez konprobatzea
- ✓ "Nire Biltegia" zerrendan aukera egiterakoan zuhur jokatzeko

Berreskuratzerakoan sistemak ez du kontrolatzen

- eskatutako irakasgaia egokia den ala ez,
- hizkuntz berekoa den ala ez,
- lehen beste edukien karga eskatu den ala ez.

Behin berreskuratuta, oker aukeratuz gero, materialak ezabatzea irakasleagoak eskuz egin beharko luke, hau da, errekurtsos ez errekurtsos.

"NIRE BILTEGIAN" DAUDEN GELA BIRTUALEEN SEGURTASUN KOPIAK BESTE BATEN ESKU JARTZEA

Edozein irakaslek beste baten esku jar dezake, nahi izanez gero, "**Nire Biltegia**" zerrendan agertzen den edozein *segurtasun kopia*.



Hori egiteko **eskaera bat ireki** beharko du CAU-ez bidez (<http://www.ehu.eus/eu/web/ikt-tic/eaz-cau-kontaktua-ordutegiak>), pasatu nahi duen **irakasgaia** eta **nori** eman nahi dion zehaztuz. Teknikariek gehituko dute jasotzen duen irakaslearen "**Biltegia**" zerrendara, bere **eGELA** 2017/18ko edozein gela birtualetan berreskuratu ahal izateko.



Kopia jasotzen duen irakasleak bere "**Biltegia**" agertzen den *kopia berria* bere **eGela** 2018/19 edozein gelatan berreskuratu ahal izango du.



Honen inguruko zalantzak eta galderak erabiltzailearen laguntza-zentroan (**CAU**) aurkeztu behar dira intzidentzia bat jarriz.

